



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Mungiako Udala

Indarrean dagoan aurrekontu ekitaldiaren barruan, kultur erakundeek urteko kultura ekintzak burutzeko Mungiako Udalak emongo dituan diru-laguntzak arautzeko deialdiaren laburpena. (2024). BDNS (Identif.): 801185.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/801185>).

Bat. — Helburua

Mungian, honako jarduera honeek sustatzea:

- Euskalduntzeko zein euskal kultura (betiko jaiak eta euskal tradizioak) zabaltzeko egitarauak.
- Eremu honeen barruan kokatuta dagozan jarduerak: musika, antzerkia, dantza, artea, literatura eta euskal hizkuntza; bertsolaritza, historia, zinea, ikus-entzunezkoak eta komunikazioak.
- Gure udalerriko historia edota kulturaren inguruko azterlanak egitea eta argitaratzea.
- Ume eta gazteentzat prestatutako aisialdi egitarau hezitzaileak.
- Animazio soziokulturaleko eta garapen komunitarioa indartzeko programak, batez bere ume eta gazteentzakoak.
- Kultura-ondarea.
- Herri tradizioak indarbarritzeko eta zabaltzeko proposamenak.
- Kultura arloko beste jarduera batzuk.

Bi. — Onuradunak

- Aurreko atalean aitatutako edozein jarduera Mungian burutu gura dauen edozein alkartek eskatu ahal izango dau dirulaguntza.
- Proposatutako egitarauak lehenetsi egingo dabe Mungian burutzeko izateari; edo behintzat, udalerrri honen garapen soziokulturalerako interesgarriak izan beharko dabe.
- Dirulaguntza jasoten daben alkarte guztiek laguntza emoten dauen erakundearen logoa jarri beharko dabe beti agirian antolatzen dabezan jarduera guztietan.
- Alkarteek eta erakundeek irabazi asmo bakoak izan beharko dabe. Eusko Jaur-laritzako Alkartearen Erregistroan eta Mungiako Udalekoan izena emonda egon beharko dabe.
- Alkarteek aurkezten dabean programa edota jarduerak Mungiako Udalaren urteko kultura programen barruan txertatu behar dira, beraz, alde aurretik adostu beharko dira programak erakunde horregaz, indarrean dagoan aurrekontu ekitaldiaren barruan udalerrian eskainiko diran kultura programa guztien arteko koordinazio egokia lortzeko.

Hiru. — Zenbatekoa

Guztira 10.500 euro bideratuko dira 2024ko udal-aurrekontuko 43.33404.48101 partidaren kontura.



Lau

Eskabideak Aurkezteko epea 10egun baliodunekoa da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Bost. — *Oinarriak*

Deialdi honetan daude.

Mungian, 2024ko abenduaren 4an. — Euskera eta Kultura sailetako zinegotzi ardura-duna, Idurre Urresti Pellejero